

JARRAIBIDEAK

BBC bidez aldibereko interpretazioaz egiten diren bileretarako

Interpreteen lana errazteari begira, gomendio hauek ematen zaizkie hizlariei. Aurrez aurreko bileretarako ohiko jarraibide berberak dira, baina aldibereko interpretazioa duten telebileretan are zorrotzago betetzea eskatzen diegu:

- Hitza hartzeko txandak errespetatu, ez hasi berbetan hitza izan arte.
- Ez hitz egin aldi berean.
- Ez aldatu hizkuntza hitz hartze baten barruan, edo egin behar baduzu, ozen iragarri, interpreteek eta entzuleek denbora izan dezaten egokitzeko.
- Ez irakurri dokumenturik hitzez hitz, aldez aurretik ez badiezu interpreteei helarazi.
- Une bakoitzean hitza duen pertsonak bakarrik izan dezake piztuta mikrofonoa.

Ahal dela, komeni da mikrodun entzungailuak erabiltzea, akoplamendurik, zaratarik eta oihartzunik ez sortzeko.

OHARRA: interpretazioa entzun nahi baduzu BBC bilera batean, irakurri «Instrucciones interpretación con BBC» dokumentua.